

GETARIA / Haur eskola eta liburutegia eraikiko du Udalak Sahatsagan

Horretaz aparte, herri eskola handitu eta belar artifizialeko futbol zelai berria eraikiko dute eremu horretan

A. Mutiozabal

Sahatsagako hiritartze lanen barruan, 128 etxebizitza erakitzeaz aparte, hainbat udal zerbitzu berri jartzeko eta lehendik daudenak hobetzeko proiektua onartu du Udalak. Hala, liburutegi eta haur eskola berriak eremu horretan egingo dituzte. Antza denez, orain dagoen liburutegiak ez die egungo beharrei erantzuten eta haur eskolarekin ere antzeko zerbait gertatzen dela dio Udalak; izan ere, geroaz eta 0-3 urte bitarteko haur gehiago dago eta eskaerari erantzun egokia eman nahi diogu.

Bestalde, herri eskolari lokal bat erantsiko diote, ikasleei jangela zerbitzua emateko eta eguraldi txarra egiten duenean aterpe gisa erabiltzeko jolas garaian. Horrekin batera, egungo futbol zelaia egokitzeko asmoa dute, belar artifizialeko zelai berri bat eginez.

Beharrianak asetu

Ekipamendu horiek guztiek Sahatsagako bizi-kalitatea hobetzeaz gain, herriko bizilagunen beharrianak asetuko dituztela espero du Getariako Udalak. Urte bukaera aldean ekingo diete Sahatsaga hiritartzeko lanei eta horiek bi urte inguru iraungo dute.